

## zuzendariari

(0034) 943 300 222

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu behariko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iritsien diren gutunak ez dira argit-

@ zuzendariari@egunkaria.com

Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

## Mila esker, Jose Mari

Jose Luis Alvarez Enparantza. Txillardegi

Jose Maria Jimeno Jurio artaxoarrak aldatu egin du, zinez eta errotik, Nafarroari buruz genuen ideia.

Eta izkutaturik zetzan nafar historia ezagutaraziz egin du.

Bestek hobeki egin dezaketelakoan, ez dut nik ere bere ekarpen historiko harrigarria goraiatuko. Nik hemen beste bi puntutxo aipatu nahi nituzke.

Alde batetik, Jose Mariren apaltasun harrigarria, gehiegizkoa. Urtetan izan dudun harremanaz baliaturik, hori segurta dezaket. Kasu honetan ere, batera gertatu dira gizonaren jakinduria eta espanturik eza.

Eta bestetik, eta hau ere zuzenki dakit,

norainoko sofrimendu ikaragarria jasan duen JMJJak urte hauetan; bizi osoan bildutako ekarpen osoa Nafarroako instituzio ofizialetatik horren lotsagabeki ukaturik eta mespretxaturik ikustean.

Ziur gaude, hala ere, ereindako haziak uzta ugaria ekarriko duela Nafarroaren eta Euskal Herri osoaren onetan.

Bihotzez: mila esker anitz, Jose Mari!

## Nafar historialari handi baten heriotzean

Gaizka Aranguren Urroz (Nabarralde, Kultur Ekimenak eta Sustapenak-en izenean)

Jose Maria Jimeno Juriok utzi diguna gure kultur gogo sakonenak asetzeko elikagaia da.

Lehenik eta behin, bere ordezkari fin eta bikaina utzi digu: bere seme Roland Jimeno historialaria. Egur onenaren espalik gozoena. Kasu honetan nabarmena da belaualdien arteko oinordekotasuna bikaina.

Oraindik dagokion mailan goraiatu ez den gure herriaren historiari buruzko lan mardula utzi digu Jimeno Juriok. Artxiboetan irakurtzen, aztertzen eta dokumentuak antolatzen eman dituen orduen balioa irudikagaitza da.

Bere herriaren kultura eta hizkuntzarekiko maitasun bideak ederki erakutsi zigugu. Bere sorterritik, Artaxoatik, Nafarroa osora hedatzen den erroekiko begiruna eta xamurtasuna. Gure oroimen kolektiboa irratzartzen duen biolinaren soinukutsakorra.

Zaila zaigu historialari handi honek merezi duen esker ona adieraztea. Bere lana gurekin gelditzen da, eta gogora ekarriko dio hurbiltzen zaion inor gizon honen gorputz txikian biltzen zen gizatasun aparta eta oztopen aitzinean agertzen zuten irmotasun umil bezain duina. Izan ere, amaigabeko grinez erakutsi zizkigun gure herriaren ezaugarriak oinarritzekoan. Preziatuenak.

## Zorionak

Iwona Waterson

Bi hitz baino ez, EUSKALDUNON EGUNKARIAREN ingelesezko webgunea ikusita sentitu dudun poza zuei helarazteko. Zorionak!

## montxo



## galdeiozu... ?



## Zein jarrera sumatu duzue Frantziako Gobernuan euskarari dagokionez?

Andoni Leizaola (Donostia)

Azken urteetan botere publikoen jarrera pixkanaka aldatzen joan da ekintzetan eta, batez ere, diskurtsoetan. Izan ere, euskara Frantziaren ondare gisa aurkeztua izateaz gain, hizkuntza aniztasuna aberastasun bat bezala ikusia da. Hori dela eta, denborarekin, euskara berpizteko hizkuntza politika osatzen joan da. Euskal Herria 2010 prospektiba lanarekin hasita Euskara 2015 Planera arte. Hizkuntza Antolaketa Eskema eta Hitzarmen berezitik igaroz. Euskalgintzaren eta federakuntzen lanari esker, botere publikoek onartu dute euskara sustatzea beren eginkizunetan zegoela eta ezin ziotela lan gutzia elkarte munduari utzi, hezkuntza, zerbitzu eta komunikabide publikoak bere esku baitaude eta eragile sozialen baliabideak mugatuak baitira.

Urriaren 8tik aurrera **Aimar Olaizola** • Piltorria izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako. [galdeiozu@egunkaria.com](mailto:galdeiozu@egunkaria.com)

## hirusta



Itziar Madina

## ... lantegiak zertarako?

**Z**ertarako?». Haurren galdera maitatuena. Buruan dut Oskorriren kantua, merkatua, oiloa, arrautza... eta zerrenda luze bateko egunerokotasunei umeez egindako «zertarako» errepikadun abestia. Usaia dio helduak ez diren galdoak direla zintzoz. Baserri giroko kantua ez, baina hirikoa izan balitz, Oskorriren aipatu horrek «lantegiak, langileak, lana... zertarako?» itaun zezakeen. Inozentzia eta xumetasunez, kea darion tximiniari berdin harrasi grisaren gibelean ageri diren eta aitamak bereganik kentzen dituzten eraikidura alimaleei so egitean, deidiar izugarrria aditzean edota lanean kolpatu, eritu edo hildako baten inguruko zurrumurrua sumatzen. 1982an, Frantziako Ariege eskualdean, ehungintzako langileek greba-mehatxua egin zuten, orduan inork aipatzen ez zuten 36 orduko lan-astea eman nahi zielakotz nagusiak. «Eta gure larunbat

arratsaldeko denbora libre?»), galdegin zuten. «130 lanpostu berri sortuko direla ados. baina ez dira langileak ezduintasun horren arduradunak, baizik eta biktimak». Batzuen arapostuek ere badutela zintzotik, eta berezikiago bizitakotik. Gaur egun Frantzia, eztabaidan dago Francois Fillon afera soziale-tako ministroaren proposamena: ordu gehi-garriak «batzea eta erraztea». Horieta 180 nahi lituzke, hots, 35 orneko astea kondaira zaharra bilaka daiteke. Eta nagusiek? Ernest-Antoine Selliere barona haien buruak ez du aurkakorik egingo. Nolaz ez, ikerketa gutziek diote ezin sozialagoa zen ezkerrek bozkatu zuten lan-denboraren murrizteak ekoizpen-erritmoen, produktzioaren, beraz nagusien etekinen emendatzea ekarri duela. flexibilitatea (ahantzia da Ariegeko langileen ibiakoz libre), eta soldataren murrizketa. «Lantegiak, langileak, lana... zertarako?»